



Unai Fernandez de Betoño
Arkitektoa

Hauteskundeez haragoko hirigintza

arkitektura / zientzia/ teknologia

Bozkatzeko eguna gerturatu ahala, alkate izateko hautagaiek gero eta gehiago hitz egiten dute hirigintzari buruz. Ulegarria da, alkategaiek bultzatutako hiri-ereduek boto-emaielen eguneroko bizitza dezente baldintzatu dezaketelako, onerako zein txarrerako. Ez da kasualitatea izango, hortaz, Hego Euskal Herriko hiriburuetakoa oraingo alkateen erdia arkitekto izatea, adreiluaren pisuaren erakusgarri. Ez da erraza soilik diskurtso urbanistikoaren arabera alderdi politikoak ezagutzea, hala ere, hizkuntza eufemistiko samarra delako nagusi. Baina, izan, badira ezberdintasunak eskuinaren eta ezkerren artean. Tenpusetan, bereziki.

Zentzu horretan, haurren mailako eztabaida piztu zen Gasteizen duela bi aste, PPren eta EAJren artean. Hauteskundeen atarian biek aldarrikatu baitute «Smart City» delako hiri-eredua, eta, orain, nor nork kopiatu zuen argitzen dabilta. Alferrik, baina, kontzeptu ustez urbanistiko horrek hamar urte baino gehiago dituelako. Hamarkada bat daramate teknologien alorreko enpresa handiek (Philips, Vodafone, IBM, Microsoft, Cisco, Alstom...) udal-gobernariak kontzertitzen haien produktu garestietan inbertitu dezaten diru publikoa, hiriak efizienteago bihurtzeko, arazo funtzionalak di-da konpontzeko. Eta teknologiaren espektakularizazio ustez sofistikatu eta azkar hori, bereziki elitearen mesederako ezarri nahi dena, «hazi arazi» lelotzat duten (beste «kasualitate» bat) bi alderdi eskuindar horien gustukoa da. Oso.

Badirudi, bestalde, ezkerreko alkategaiek hiri-eredu geldoago baten alde egiten ari direla, oro har, eta, halaber, nahita edo nahi gabe, maileguan hartutako modako hitzen gerran ere sartu direla. «Cittaslow» (urteekin saskinaski bat bihurtu dena), eta, bereziki, azken urteotan, «Transition Town» bezalako terminoak dezente entzuten ari baikara. Etiketez eta zigiluez harago joan beharko lirateke politikariak, sakoneko ideiak azpimarratuz: eskubide indibidualak zein kolektiboak bermatzeko, zeinahi direla ere (irisgarritasuna, berdintasuna, sabaia), hartu behar da hirigintza arloko erabaki oro. Giza-duintasuna helburu.

Azkenik, Euskal Herriko zenbait alkate(gai)ren kasu bitxia aipatu daiteke; irabazten duenak irabazten duela, goragoko Administrazio batetik (itxuraz udal-mailako diren) jasoko ditu hirigintzako aginduak. EAEn ez bezala, Nafarroan, hiri-mailako proiektu garrantzitsuenak Udalak saihestuz Foru Gobernu zentraletik zuzenean erabakitzen dira PSIS delako tresnaren bidez. Adibidez, Lekarozen 252 etxebizitza, golf-zelai bat eta hotel bat egiteko proiektua ezin izango du Baztango alkate berriak gelditu: Udalak egin arren udalerriko hirigintza gidatzen duen Plan Orokorra, hierarkia urbanistikoan gorago dagoen PSIS baten bidez indarreratu du proiektua UPNk. Aldaketa, beraz, Foru Gobernuan gertatzea ere beharrezkoa da.

Eraikitzaile diruzaleek badakite nor bozkatu. Baita hiri eta lurralde buruaskeagoak eta sozioekonomikoki justuagoak aldarrikatzen dituztenek ere. •

3 BEGIRADA:



Ilustrazioa: Unai FERNANDEZ DE BETOÑO

BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



XABIER GOENAGA FUNTSA

«BOSTAK ETA ILUNA, TXERRIA HILTZEKO EGUNA»

Jose Makazaga harakin eta Donostiako Orfeoiko kideak, senide eta bizilagunekin batera, 1905. urtean eta Donostiako kaia inguruan eginiko txerri hilketa jasotzen du irudiak. Euskal Herriko baserrietan oraindik ere bizirik dirauen ohitura da txerri hilketarena, eta, hala, urte osorako haragi eta hestekiak eskuratzen dira. Neguko hilabeteetan egin ohi da hilketa, ilargia ilbeheran dagoela; izan ere, herri jakintzak dioenez, ilgoran animaliairen haragiak indar gutxiago du eta ez da egoki mantentzen. Irudian bezala, senideek eta lagunek laguntzen dute erritu honetan eta ahaleginaren ordainetan txerrimuinak banatzen dira. Atsotitz ugari jasotzen dute txerri hilketaren ohitura; hor dira “Ezkondutako urtea eta txerria hildako astea, onenak” edo “Bostak eta iluna, txerria hiltzeko eguna” esaera zaharrak, besteak beste.